

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86

50pts

g. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATORDEA

1986ko Martxoa



UDAL EUSKARA BATZORDEAREN AGURRA

Poz handia ematen digu euskara zuzen-
ki aldizkari berri bat ateratzea goazela jakin-
ki. Euskararen udal-azpiatzordea izango da
e egilea, eta, udalaren babesean, hileoro argi-
tutako asmoz jaitzen da.

Egia esan, gure euskara indartzeko egin dai-
cen lan guztiak gutxi izango dira. Horregatik,
alab berek eman behar du, eta ematen saia-
ri gara, eratzasunak eta urrats sendoak bide
retan. Euskara baita da gure herriaren eta gure
fiko hizkera, eta hala irautea nahi dugu.

Aldizkariaren izenak berak, "HONDARRI-
BIA", herritar guztien aldizkaria eta guztiztat
go dela adierazten du. Lehen ere, honelako
ioz egin zuten, orain dela hogeita zortzen bat
OARGI-KERIZPEkoek ONDARRIBI
a, eta bi urteren buruan hainbat berri eman
aldu zuen garai hartan gure herrian. Oraingo
ek haren jarraitzaile izan nahi lukela, diote
eck. Hala bedi.

Azkenik, Udalaren laguntza osoa beti izan-
tutela honelako ekintza jatorrek, azpimarratu
i nuke, eta lehendabiziko zenbaki honen bi-
herritar guztiak agurtzen zaituztet, udaberri
bat opa dizudalarik.

ALFONSO ORONÓZ

UDAL EUSKARA BATZORDEAREN AGURRA

Aldizkari berri bat argitaratzea, ez da egune-
ro gertatzen den gauza, eta hori Hondarribian
gertatzea harrigarria izan daiteke.

Aldizkari honen sortera zertarako, batek
baino gehiagoz galde dezake, eta erantzuna zera
izango litzateke, gure herna euskalduna dela
inork ezin du ukatu. Adituek, eta azterketak esan-
ten dutenez herri honen biztanlegotik % 70 bat
euskalduna da, baina, euskaldun izatea ez da hitz
egiten jakitea bakarrik, euskaldun izateko euska-
raz bizitu behar da, eta gaur egun, zoritxarrez,
hori ez da Hondarribian gertatzen.

Udalako Euskara azpiatzordea sortzeko
arrazioa hori izan zen, gure herriko biztanleak
euskaraz bizitzeko laguntza emateko, eta euska-
raren bizitza bultzatu eta zuzperitzeko.

Hortan ari gera, arazo askorekin, akats pila-
rekin, baina, horaz gure urratsak ematen eta ozto-
poak gaiztindien.

Euskara azpiatzordearen asmoak zabalak
dira, egin dezakegu esan noraino iritsiko garen,
baina, lanean jarraitzeko gogoia badugu, eta gogo
eta asmo horietatik sortu da aldizkari hau.

Aldizkari batek eragin handia izan dezake
gure herrian, eragina euskararen alderdikik noski,
euskara utsean izango baita, eta eragina jendeak
irakurtzea lortzen badugu, hauexa baita da kasu
honetan daukagun helburua, hondarribiarrek
euskaraz irakurtzen jartzea.

Aldizkari hau prestatzen hasterakoan, bi
aukera genituen, alde batetik aldizkari literarioa
egitea zen, idazle opesunak eta gai sakonekin,
edo, aldizkari herrikoi bat egitea, edozeinek irakur-
tzeko modukoa, eta bertako gaiekin.

Orain dela hogeita, hogeitabosten bat urte,
Hondarribian, honelako aldizkari bat ateratzen

zen. Bere iraupena ez zen oso luzea izan, hogeita-
tamabosten bat zenbaki kaleratu ziren. Oargi
Kerizpe Elkarteak argitaratzen zuen ONDA-
RRIBI aldizkaria. Hura, ia erdara utsean argita-
ratzen zen, bazuen bai, artikuluxka batzu euska-
raz, baina, haren helburua ez zen euskara
bultzatzea. Beste helburu batzu izango zituen
noski, baina, ideia bezela, herriko aldizkari oso
atssegina zen, ulertzerre, eta ideia hari atxikiaz,
haren antzekoa egitea pentsatu genuen, baina,
euskara utsean.

Honekin pentsatzen dugu helburu hori be-
tetzeko posibilitateak baditugula. Gero, irekia eta
zabala ere egin nahi genuke, edozeinek parte
hartzeko modukoa, eta, gainera, aldizkari herri-
koi bat egitea ez du esan nahi edozein modukoa
izan behar duenik. Noski, gai interesgarriak eta
sakonak sartuko ditugula, eta edozein idazlek
bere lanak baldin nahi bazu, oso ondo hartuak
izango direla. Bestalde, idazle gazteak gonbida-
tzen ditugu lanean has daitezen.

Hauex dira gure asmoak. Aldizkari honek
iraupe luzea edukitzea gustatuko litzaiguke.
Iraupen hori lortzen badugu, herriarentzat in-
teregarria delako izango da, eta herriko jendeak
oso atsegin hartzen duelako.

Horrekin gure helburua beteta egongo liza-
teke, eta euskara salbatzeko gure hondar alca
jartzen ari garela jakingo genuke.

HONDARRIBIA aldizkariaren lehenengo
ale honetatik, Udalako Euskara azpiatzordeak
agurtu nahi zaituzte, eta alde batetik euskara
aurrera ateratzeko laguntza osoa eskatzen dizuen
bezela, bestetik bere laguntza osoa eskaintzen du
euskararen alorrean eduki dezakezen edozein
arazo konpontzeko.



ESKUTITZAK

"HONDARRIBIA"ko Zuzendari jauna:

Jakin dugu errebesta hori atera behar duzue-
la, eta euskaraz gainera. Ez dakigu noiz aterako
den lehenbiziko alea, baina jakin nahi genuke ea
edozeinek idatzi lezakenez aldizkari horretan. Esa-
ten dugu hori, uste dugulako jendeak beti izaten
duela zerbitu beste batzuri esateko, eta esan gabe
ez dela lasai geratzen, gainera.

Edozein modutan, zorioren eman nahi di-
zuegu "HONDARRIBIA" epiteko ausardia du-
zuelako, zeren esaten dutena egia baldin bada,
hilero aterako duzuela, hori egiteko gogo haun-
dia behar da, eta denbora asko ere beharko
duela.

Euskara hutsean ateratzea ere ongi ikusten
dugu, baina mesedez, euskara erraza izan dadila,
bestela jendeak ez du irakurriko.

Bueno, besterik gabe, agur.

MAITANE O.

ZUZENDARIAREN ERANTZUNA:

Orri hauek irekirik daude edozeinentzat.
Eskatuko ditugun baldintza bakarrik, bi hauek
izango dira: euskaraz idatzita eta izenpetuta ego-
tea.

Beraz, nik duenak, idatzi dezala, horrela
biziagoa izango da eta gure aldizkaria, herriarren
iritziez orriturik.

Bide batez, eskerrak ematen dizkiegu lehe-
nengo bi eskutitz hauei.

Nonbait jakin dute gure berri, eta lehenengo
zenbakirako etorri dira. Eskerrikasko.

"HONDARRIBIA" aldizkariak:

Gure herria oso polita dela esaten dugu, eta
kanpotik datozen guztiek ere gauza bera esaten
dute, baina negua iragoto gero etortzen badira, ez
dakit zer esango duten. Gainera, gutxiene da
kanpotarrek esango dutena. Guk, edo nik behin-

tzat esan nahi dudana, hau da: herriko kaleak
zuloz beterik geratu direla neguan egin duen euri
guztiarekin. Kaletan barrena pasatzen diren ko-
txeek ateratzen dituzten zipritinekin, espaloietan
ezin gara ibili lasai.

Nik horixe eskatzen diot Udaletxeari, bañis-
tentzat bakarrik ez txukuntzeko herria, guretzat
baizik lehenbiziko.

P. A.

"HONDARRIBIA" aldizkaria idatzi nahi du-
nak, edo gure berri jakin nahi duenak, Uda-
letxera jo dezake, 64.23.40 telefonora, edo
bertara joan, eta Euskara Azpibatzailearen
galdara egin. Baita Korreosen Udaletxeko
Posta Kutxara (apartado de correos), eta
bertara bidali nahi duzuenak.

MARTXOKO FUTBOLA

Martxoak 2:
Umeak: Hondarribia - Gure Ametsa.

Martxoak 9:
Gazteak 1: Hondarribia - Azkuene.
Umeak: Hondarribia - Trintxerpe.

Martxoak 16:
Rejionala: Hondarribia - Danak.
Gazteak 1: Hondarribia - Herrerako Sporting.
Gazteak 2: Hondarribia - Don Bosco.

Martxoak 23:
Umeak: Hondarribia - Anzaran.

Martxoak 29:
Real Sociedad en Nazioarteko Lehiaketan.
Martxoak 30:
Rejionala Hondarribia - Trintxerpe.

TXANDAKO OKINDEGIAK

Martxoak 2, igandea: Garmendia.

Martxoak 9, igandea: Martinez.

Martxoak 16, igandea: Arratibel.
Martxoak 23, igandea: Garmendia.
Martxoak 28, ostir. s.: Martinez.
Martxoak 30, Pazko 1: Arratibel.
Martxoak 31, Pazko A.: Garmendia.
Arratibel. Zubietako kalean, tel. 641975.
Garmendia. Santiago kalean, tel. 641136.
Martinez. Kale Nagusian, tel. 641212.

TXANDAKO BOTIKAK

Martxoak 1-2: Erauskin.
Martxoak 3-9: Mayi.
Martxoak 10-16: Iraola.
Martxoak 17-23: Erauskin.
Martxoak 24-30: Mayi.
Martxoak 31: Iraola.
Erauskin. S. Pedro kaleko 28an, tel. 641018.
Mayi. Alm. Alonso kalean, tel. 642191.
Iraola. J. Ugarte kaleko Sean, tel. 641027.

KARTELDEGIA: Ama Guadalupe Ikastetxean

Martxoak 2: 4,30etan "Robin de los bosques".
Martxoak 9: 4,30etan "Aventureros del Caribe".
Martxoak 16: 4,30etan "El amo del mundo".
Martxoak 23: 4,30etan "Las aventuras de Tom Sawyer".
Martxoak 30: Ez da zine emanaldirik.

TELEFONO LAGUNGARRIAK

Aireportua	642240
Babes zibila	451946
DYA	464622
Errepideen informazioa	270581
Gizarte segurtasun (Itsas etxea)	641965
Gurutzte Gorria	272222
Igeldoko meteorologia	210759
Isasoko Gurutzte Gorria	421440
Renfe	616708
Suhiltzaileak	622000
Udalzainak eta Udala	642340

VIAJES MARSANS

Hondarribirako ordezkaria
MERCEDES ARTOLA

Matxin de Arzu kalean - Tel. 643308
HONDARRIBIA

ARRATIBEL OKINDEGIA

Egur labea

Zubieta kalean Tel. 641975
HONDARRIBIA

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

HERRI GIROA

Enrike Gonzalez, Udaletxeko ordenanza ezaguna, jubilatuta berria du. 1946an sartu zen udaletxean langile bezala, Mendeluko fieltatzen, "sisero". Hemezortzi urtetan egon zen sisero. Irundik herria, edo Hondarribitik Irurera zibazozen guztiak igaro behar zuten Enrikeren kontrol zorrotzetatik, zergak ordaindu. Ze garaiki!! Tranbiak ere alto egiten zuten, eta banan banan begiratzen ziguen bakoitzari. 3 pezeta ordaindu behar ziren oilaskoagatik, eta 5 pezeta pastel dozenagatik. Fieltatzen kendu zenean, etxe ura kobratzen, etabar, eta, azkenaldi honetan, Udaletxeko paraserje egiten zuten, Julio Bruguera jubilatuta zenean. Bere lekura, Rikardo Goyogana herriko semea sartu da.

Agur, Enrike, eta ongi eta luze igaro atsedeneko urteak!

Otsailaren 2an, URIARTE II itsasontziak, goizalban legatzetara zigoala, Juan Mari Perez patroia zelarik, kostatik sei milietara deriban zegoen kontainer handi bat ia ia jo egiten zuten, bere alboetik igaroz. Komandantziara deitu, eta situazioa emateko eta bertan laguntzeko, esan zioten, baina edozein ontzirentzat arrisku ikaragarria dela ikusi. Benta izkinara erremolke ekarri zuten. Oraitindik bertan dago, karro ondoan.

"Arrantzale Zaharren Elkarteak" urteoroko Batzarrea egiten zuten otsailaren 23an. Orain arteko presidentea, Arturo Pardavila zen, baina egun horretan, junta berria aukeratu zen. Lehendakari berria, Pedro Berrotarain "Kulluki", lehendakariordea, Gregorio Tife, bokalaka, Arturo Pardavila, Tomas Sorzabalbere, Eugenio Idiazabal, Jabier Olaskoaga eta Migel Larrauri.

Gurutze Gorriak sokorrismoa ikastaldi bat eratu zuten otsailaren 17tik aurrera, Itsas Etxean ematen direlarik klaseak. Sendagile, erizain, eta monitorea dire klase emaitzak, Dr. Agra, Dr. Sarasola, eta Dr. Esteban dira teoriaren irakasleak, eta praktika, berriz, Gipuzkoako Monitore Eskola arduradunek emango dute.

Museko txapelketak ere perretxikoak bezala ugaltzen dira negu eta udaberriaren zehar. Otsailaren 5etik aurrera, adibidez, ospatzen ari da, Mar-laxka, Azeri elkarleak, eta Alameda. Antxua eta Laguna tabernen artean. Beste batzu ere ari dira, baina ez dugu berri zehatzik.

Otsailaren 13an Itsas Etxean, eta 20an Amuteko eskolan, hitzaldiak eman dituzte Plan General berriaren egile diren Francisco de Leon arkitektoak eta Teodoro Cacho abokatuak, norma subsidiario berriak azaltzeko. Itsas Etxera hirurogeiren bat lagun hurbildu ziren, eta Amuteko eskolara berrogeiren bat. Harrez gero, Amuteko artean ere beste hitzaldi bat emana da, nahiko jenderekin, zein eta, trafikoa Kostako kaminotik eraman nahi denez, Amute eta Kostako jendea oso kezkatutik aurtitzen da.

Otsailaren 22an telebista italiarrek pelikula bat egiten ibili ziren Hondarribian, gero Italian, Frantziako A3an, eta beste herrialde batzutan botatzeko. Kale Nagusian ikusi genituen lanean, eta handik Paradorera sartu ziren. Bata Klineeta Goxoki elkarrekin ere ibili ziren pelikula ginean, jendea musean, sukaldaritza, etabar, zebilela. Oso gustura joan zirela, esan beharrik ere ez dago, plater goxoak jateko aukera izan zuten eta. Gure herrian badakigu ongi portatzen behar denarekin.

Txanpalarren 20an egiten zuten Batzarre Orokorra; 23an, Mar-laxka, Itsas-Lur, eta Arrantzale Zaharren Elkarteak; 25an, Asociación Católica de Padres de Familia ere bai. Berrazko hauek zehaztasunik ez dugunez, ezin dugu eman, baina hurrenerako eskatzen diegu Elkarte horiei, bidali diezaiagutela berrien batzu, hemen jartzeko.

Pasaiako kaia "Gure Antiguako Ama" itsasontzian, Pablo Miranda Aristzabal eta Salbador Goinetxe joan dira bakoitara, Terranova. Bestalde, Panamara, atunetara, Jose Antonio Bilbao. Ez dago jendea geldi egotea!

Ramon Roteta sukaldariak ere badu bere bidaia. Batetik, San Frantziskora joan da, hango konsulado berriaren inaugurapenaren bazkari eder bat prestatzeko, eta, bestetik, beste herrienbeste egitera Los Angeles-era. Hain urrutira joan gabe ere, egingo genuke hemen bazkari eder bat!

Gure herritar Alfonso Sastre idazlari ospetsuak sari sonatu bat irabazi berria du otsailaren 15ean. Sari hori "Premio de la Crítica" da. Sari hau gaztelaniaz idatzi den antzerki obrarik onenari ematen zaio, eta, hain zuzen, Alfonso Sastren "La Taberna Fantástica" gertatu da irabazle. Zorionak gure herriko idazle onari.

Bibiano Arbelaizen eriotza oso sentitua izan da. Hainbat urtetan Kofradiako bandera eramana da bere bizkarrean. Aste Santuan ere apostolu jantziak ere ikusi dugu urte askotan.

Berdin gertatu zaigu Itsasondan hil den Rosa Mari Ugarte, Elias-azpiko Jose Migel arraunlari famatuaren alabarekin.

Eta zer esanik ez, Udako gure lagun izan den Josefina Garzia. Goian begoz.

Azkenaldi honetan kakoak edo lapurrak gogoz ari dira gure herrian. Etxebizitzak, dendak, kotxeak, denak dira bisitatuak jende horren aldetik. Lapurretarik apagarriena PASKUA dendiari egina izan da, denda guztia ankaz gora utzi, eta lapurrak joste!

Sua ere izan da, eta haundiena "Zokueta" baserri gainean sortu zena. Irungo bonberoko deitu izan behar zitzairen, nahiz eta Ikonoako jendea han egon.

Trafikoko istripuak ere noiznahi sortzen dira, eta Hondarribian ere ezin ihes egin gaitz horri. Hamarren bat gertatu dira gure artean, motoenak



batez ere, zauritu eta guzti. Irun-Hondarribiko autobusak ere zakur handi bat arrapatu ondoren, istripua izan zuten. Udal eriztainek eman zioten lurra, gero, zakurrari.

Otsailaren 22an, San Pedro kaleko barrera hautsi zutela, eta El Diario Vasco egunkariak gannbera bat izan zela jarri zuten, herriko txotxuei kulpak botatz, gau hartan, gainera, iskanbila asko, kotxeek kristalak puskatu, arbolak hautsi, etabar egin zela, esanaz. Informazio benetakoa, ordea, beste bat dela jakin dugu udaltzaingon. Gau hartan gertatua, kotxe batek barrera jo istripuz, eta horrela hautsi zela barrera esan digute udaltzaiek. Ez ziren, ba, txotxuak izan apurtzaileak, eta gero bidez gauzak bere tokian.

Hilaren azken egunean, 28an, beste gauza harrigarri bat gertatu zen. Hendaiako kaian basea duen PEDRO JOXE ontzia, sare pelagikoez arrantzan zebilela arrapatuta izan zen, kostatik zazpi milietara. Abisua, Donibane Lohizunetik etorri omen zen, hango arrantzaleek ikusi bait zuten tranpazko sari horiek. Berehala mugitu ziren. Hondarribiko, Donibane eta beste kai batzuetako ontziak, guztiak haserreturik eta Hondarribiko kai berrira etortzera behartu zuten. Hemen, atzemana zuten arrain guztia gasoldu zioten, eta sarak ere. Bitartean, herri guztia guardia zibilez bete aurtitu zen, tanketa eta guzti.

Jendea, zer gertatzen zen galdezka ari zen, horrenbeste polizia eta guardia zibil etortzeko. Arrantzaleek, beren aldetik, itsasoen dituzten eskubideak orbatik bete beharko dituela esaten zuten, eta gauza bat dela bulgetarik arrantzaleen alde hitzegia, eta bestea itsasoen errespetoa sartzea.

GURE PERTSONAIA

DON JOSE
TTIKIA

Don Jose Ormazabal, herrian bizi dela urte asko dira, eta arken belaualdietako historiaren puska haundi bat jasoa duela, ez da inorentzat sekretu. Herriko gorabehera asko idatzi egin du urtetan zehar. Gaur egun, Hondarribiko historiari buruz don Joserekin hitz egitea, benetan gustagarria da.

Abots leun eta hizkera eztiz mintzatzen zagu, eta, etorria oparatu duenez, galdera batzu egitera hurbildu gaitzakio.

—Don Jose, zuk ere bazenuen garai batetan aldizkari bat, ezta?

—Bai, hementxe ditut, eta hona hemen ale guztiak bildu eta enkusdematurik. Eskaraz, gaztelanaz eta fantezes ateratzen nituen.

—Noiz hasi zinen lan horretan, eta zertarako?

—1956ko urrian, herriko Accion Catolica-ko neskatxekin egin genuen bilera batean azaldu nien halako aldizkari baten beharra, neskatxa asko bait zen herriko kanpora lanean, atzerrian batez ere. Esan beharrik ez dago inolako atsegina ematen dion kanpoan bizi denari herriko berriak jasotzea, gauzak nahiko zehatz kontatzen badira, behintzat.

—Laguntzarik izan al zenuen?

—Ez, bakarrik egin nituen ale guztiak. Izena "HONDARRIBIKO IZPARRAK" zuen. Herriar asko izan zen nonahi bizi zelarik, jasotzen zuena. Badituz hementxe eskutitak, eskerrak emanaz.

—Nora bidaltzen zenuen?

—Nora? Frantzia, Belgika, Ingalterra, Argentina, Sidi Ifni, Congo, Venezuela, Argentina, etabarrera. Hilabetero bidaltzen nien guztiei.

—Noiz ateratzen zenuen "HONDARRIBIKO IZPARRAK"?

—1956tik 1960ra artean. Gero gaisotu egin nintzen, eta utzi beharra izan nuen lan eder hura. Neure polixikotik egiten nuen, gainera.

—Herrian zabalitzen zen?

—Ez, atzerrian bizi zirenetzat bakarrik zen. Hemen zabalitzeko, zensurarik pasa behar ziren, eta egin ziren esan gauza batzu. Horregatik, nik kanpokoentzat bakarrik egiten nuen, eta, gero, nere mobileta hartu, Hendaiara igaro, eta handik bidaltzen nituen, korreo. Hendaiarako joan etorriak zirela eta, don Josek kontrabandoa egiten zuela ere esaten zuten batzuek.

—Gai horretaz aparte ere, zu asko ibili zinen Guadalupea autobusak antolatzen eta?

—Bai, astelchenero joaten ginen Guadalupea, urte guztian. Hoge mila lagunetik gora eramant ditut Guadalupea, pertsona larrik kontatuta bakarrik. Bederatziren bat urtetan irauan zuen joera horrek. Haurak ere milaka. Guadalupeko Ama Birjinaren zaleatasuna erabat galduta zegoen, eta horrek bultzatu ninduen herria hara zuzentzea. Lau pelikula ere egin nituen neronek han, baina pelikula horiek ez dakit ez diren galduko, pintore batek eskatu, eta utzi nizioan, eta bildur naiz ez ote ditudan gehiago eskuratuko.

Esan dugun berala, don Josek gauza asko du kontatzeko. Berrogeita hiru urte darama herrian apaiz, obserbatzaile zorrotz eta gertakizunen jasotzaile.

Eskerrak ematen dizkiogu gaur esanagatik, eta beste egunen batean galdera gehigorekin joango gaitzakio.

MIKEL



GOGOETAK

TXOKO
MAITEA

Lehenengo batean, Gabonetako jaiak hasi baino lehen, eta "Txoko Maitea"ko inguruetatik pasatzen ari nintzela, begizatu nuen pisat nola ari ziren botzen horren etxe polita. Zenbat hauts

pilatutze! Izugarriko jendetza geratuta zegoen ikuskitzen hura beren memorietan zekuten. Herriarrek multzoetan eta korreetan begiraka ari zirela, haiei begietan denetarik sumatzen nuen: pena, grina, tristura, larritasuna, jakinahiak. Eriztuen nituen esaldi pusketek iraganaren nostalgikak eta etorkizunaren misterioak alpatzen zituzten.

Neuri ere, ikusleen egoera berdinean aurkitzen nintzelarik, bururatu zitzaizkidan lehenengo irudiak etxe horren historioak izan ziren: Zenbat eta zenbat gertakizun ikusi, jasan, goza, bizi dituzun, Txoko Maitea! Zenbat por, zenbat atsekabe! Kanpotik polita bazinen, barrerendik ederrago. Sorretik, Malekoituri begiratu nahian bizi izan zara, hondartzaruntz zetozen balistei ongiortoria

ematen. (Zure izena bera ere hain zen esankorra. Nor ezarriko ote zintzun?).

Txoko Maitea, non zaude? —Ez zaude inon, nere gogoan bazuk. Zure ondoan geratu nahi du denbora apur bat bederen. Zure ondoan egoteak bakea dakarkit eta atsedan.

Jakin ba dakit ondo, "Txoko Maite Berria" eraikiko dutenean, bergissa egongo dela itasoari begiratu nahian, hondartzarik datorrenari "ikus arte" esanaz.

Nire begiak halabaina, etxe berria begiratu-ko dutenean iraganaz oroitzeko dira, iraganak aberasten bait du geroa.

GUADALUPE ARTOLA

ARRAUNLARI

Jatetxea

Butron Ibilbidea Tel. 641581
HONDARRIBIA

MARTINEZ ORTIZ

Haltzaridenda

Butron Ibilbidean
Tel. 642647 dendakoa - 643423 etxekoa
HONDARRIBIA

LUC
Argazkigintza

Zuloaga kalean, 18 Tel. 641972
HONDARRIBIA

UDALA

HIRIGINTZA ARAUDI BERRIA

Udalak bere eskutian duen arazorik haundienetakoa, hirigintzarako egiten ari den araudi berri, edo Normas Subsidiarias, izango da, noski.

Aurreproiektua egina da, dagoeneko, eta herriari ere egiten ari zaizkio agerpenak. Itas-etxean, Mendelun eta Amuten eman dira hitzaldiak, eta badirudi jendea piska bat kezkatzen edo arduratzen hasi dela.

Oraingo plan berri hau datozen zortzi urterako irango da. Pundurik nabarmenenak, hauek dira:

ko hainbat. Orain, berriz, 7.000ra mugatzen dira.

- Etxe bizitza merkeagoak egin nahi dira, berriko seme-alabek kanpora joan beharrik izan ez dezaten. Hortarako, lur eremu batzuk finkatzen dira, eta Udalak kontrolatu beharko ditu horko eraiketak.
- Lehenengo eremu zabal haiek, nekazaritzarako gordeko dira.
- Etxe batzu bota egingo dira, bide eta espaloi berriak egiteko.

INDUSTRIA

- Lantegi berriak egiteko ere eremuak izendatzen dira: Santa Engraziako errekatxo inguruan, Aireportuaren ezker eskubik, eta Mendelun, San Jose Langile auzoaren atzekaldean.

BIDE ETA ERREPIDEAK

- Santa Engraziatik errepide berri bat proposatzen da, Polikirolegi ingurutik barrena, Kar-

tonajesera, eta Guadalupeko bidea gurutzatuz, Torrea baserriraino iritsiko dena. "Torrea" bota egingo litzateke, eta plazaleta bat egin hondartzaldea Baserritarren Ibilbide-
detik joateko.

- Turismoa, Santa Engraziatik hondartzara bidaltzeko, Amutetik barrena Kostako bidetik zuzenduko litzateke.
- Kostan bezi direnentzat, baratzak aldetik, atzeko bide berri bat egingo litzateke, Kostako bidera ateratzen izan ez dezaten.
- Carretera de la Cornisa famatua, hasita dagoena, eta inoiz bukatu ez dena ere, oraingoan egingo litzateke. Hortarako, "Iturri-berri" etxea bota, eta handik gora, Sorroetagainetik barrena, Glym igo, eta Sokoatik barrena, hondartzara joko luke, han bukaera, beste etxeren bat bota eta ateratzeko.
- Irungo planak betetzen badira, Amuteko gurutzera iritsiko da Plaiaunditik barrena. Behobiatik datorren N-1 berrina, Amuteko gurutzetik barrena Jaizubiako errepide hartu eta Donostiara aldera joateko. Hau hala egiten baldin bada, Mendeluko zubia bota egingo litzateke, zirkulazio guztia Amuteko gurutzetik joango litzateke eta.

ETXEBIZITZAK

- Etxebizitzak egiteko lur eremua asko laburtu da. Lehenengo planean etxeak egiteko ziren lur eremuak oso zabalak ziren, 11.000 etxe egite-



BESTEAK

- Bidasoa eta Buiton ibilbideak elkartu egingo dira Arantzaleen Benta aurretik igaroz. Itasozintzen karroa eta gainerakoak ongi konponduko omen dira.
- Kai Zaharra inguruan lurpeko garajeak egingo dira.
- Kultur etxea ere Kai Zahararen ondoan joango da.
- Lonjako molla egokituko da.
- Kai Berriko lanak bukatuko dira.
- Ibilbide luze bat egingo, zuhaitzez ornitua, Lonjatik hondartzaraino, Bidasoa ibaiari erretzik.
- Etabar, etabar...

IÑAKI

NEKAZARITZA

"HONDARRIBIA" hileroako aldzikari honetan nekazari eskeimiko diogu lerro batzuek.

Gaur ez dugu gai berezirik hartuko, zein gai aipatzen joango garen bakarrik. Gaur asko dira, baina, Hondarribian kokatu, eta esan behar dugu baserri asko desagertu direla azken urteotan, batzuk dirua duten jendeak erosi eta "villa" bihurtuz, eta besteak, maizterrek alde egin edo bidaltakoaren ondorioz eroriak, besteak berriz, ahal izan den modura jarraitu dute baserria zaintzen, lantoki batean lana eginaz, eta besteak, berriz, arrantzara eta horrela abar luze bat.

Nekazari edo baserritar boiengatik lan egin nahiko genuke, ez dezaten baserria utzi.

Hemendik aurrera aipatuko ditugun gaiak, hauek izango dira:

Lehenik, eta gaur, aipatuko dugu "Plan general de Hondarribia"-z, zer den eta zer garrantzia duen nekazaritzatik, maizterren legeaz (baserria errentan dutenak) aurtien bukatzen dela lege hori gogoratuz, Jaizkibel mendia, bideak, espropiazioak, argiak, errentak, inberraderoak, zelaia, ikulu irekiak, kooperatibak, korreoa, eta abar.

Aurtien, dakizuenez, gure Udala aurkeztzen ari da "Hondarribiako Plan Generala". Hor esaten da nola nahiko genuen gure herria egotea datozen 10 edo 20 urtean. Honek garrantzi

haundia du, nahiz ez uste, nekazariarentzat, zeren hor azaltzen dira zein lur izango diren nekazaritzarako eta zein etxe eta lantegiak jartzeko.

Esate baterako, Arkol auzoan gertatutako dena, lan horren arabera, urbanizalea dela. Nahiz eta beren asmoa izan etxe batzuk besterik ez egitea, gertatuko da maizterrek ezingo dutela baserria eta lurrak erosi, urbanizalea izateak prezioa asko igoko baidu.

Horregatik, ahal duen guztia joan behar du bere lurrak loka geratzen diren ikustera, eta ez zaila komeni ikusirik, Udalan bere kexa eman, gero kontutan hartzeko.

XIMON

KULTUR EKINTZAK

ESPRESIO TAILERRA

Espresio tailerrekoek "Udaberriaren eguna" ospakizuna prestatzen ari direla aurreratu digute. Ekintzak aste oso batez izango dira, aste bukaeran jaialdi nagusia ospatuko delarik.

Oraindik ez dago erabakita Pazko astean edo hurrengo astean zehar izango den. Dena den, adi egon zaitezte, pena merxi bait du; eta norbait interesaturik balego, Satarka etxean galde dezake.

ESKIFAIA ABESBATZA

Aste Santuak Hondarribian duen garrantzia oharturik eta giro hau gal ez zedin, abesbatza honek ziklo berezi bat antolatzen hasi zen orain dela lau urte. Beraz, aurtien "IV. Aste Santu zikloa" dugu. Lau kontzertuk osatzen dute ziklo hau eta ziklo korala izango da.

Musika korala entzuteko aukera ederra dugu, beraz. Kontzertu guztiak Setan izango dira Portuko Elizan.

Hauk dira:

Martxoak 15, larunbata: Valladolidko "Cáppila Clásica".

Martxoak 21, ostirala: "Elizondo" Abesbatza.

Martxoak 22, larunbata: Gasteizko "Samaniego" Abesbatza.

Martxoak 23, igandea: "Eskifaia" Abesbatza.

ZUHAITZAREN EGUNA

Martxoaren 1ean herriko eskoletako 6. mailako berrehun eta berrogeitamar bat neska-mutlek "Zuhaitzaren Eguna" ospatuko dute.

Hondarribiko Ekologi Taldeak Guadalupe naturari dagokion jokuak prestatuko dituzte eta Udaletxeak erositako zuhaitzak aldatu:

- 100 gaztainondo.
- 75 haritz.
- 75 urki.

IKASTALDIA

Institutoan "Interpretación de expresión plástica" delako ikastaldi bat antolatuta dute ikasleentzat.

Honela, espresioa lantzen ari dira, gelak margotuz, antolatuz, e.a.



OPORRAK

Aste Santuko jaietan zer egin behar duzu? Zerbait egiteko asmoa baldin baduzu, Eusko Jaurlaritzak atara duen "Aste Santu Gida" liburua interesatuko zaitu. Bertan gai d-fereenteak aurki ditzakezu: hizkuntz ikastaroak, bidaiak, alojamentuak, etabar.

Institutoan baduzu liburu hau, eta bestela zoaz Udaletxera, han interesatzen zaizun edozein gai Lurdesek argitatu ditu. Ekaina alderako ere beste gida bat aterako da.

Opor zorianutsuak!

ASTE SANTURAKO GIDA

Esan dugun bezala, Eusko Jaurlaritzak udaberrian oso ongi datorkeen gida bat argitaratu eta kaleratu du, "A la hora de partir" izenarekin, erdara batuan, noski. Liburuxka honetan aurkitu ditzakezun puntu batzu, hauk dira: Akanpatzeko normatiba - Egonlekua - Albergetarako karneta edo ageria - Ikasle ageria - Unibertsitate kirol ageria - Mendiatiko errefuxioak - Non dateteken kanpinak alokatu - Deskuentoak - Datetxe eta ostatu merkeak Euskal Herrian - Etabar.

Kusten denez, interesgarria gazte jendearentzat, askotan ideiak falta bait zaizkigu nondik nora ibil edo zer egin oporraldietan, diru gutxiarekin gabilzala kontutan harturik, batez ere. Dirua urri, eta gogoluz? Hona hemen, beraz, zuretzako gida polita. Bila dezazu!

MARIBI

ELIZA NAGUSIKO BEIRAKI EDO BIDRIERIEN KONPONKETA

Hondarribiko eliza nagusiko bidrierak gerra eta egoera kaskarragonek zeudela ikusteak, hainbat buruhauste sortu ditu bertako arduradunen buruetan, beraien konponbidea nola antolatu erabaki nahian.

Hogetabi bidriera-leiho dira guztira. Batzuk zarrakatuak, beste batzuk oso urratuak agertzen dira.

Bidriera horien zahar-berrieteak eskatzen duen kaxua ZAZPI MILIOI pezetakara igotzen zela agertu zen egindako aurrekontuak.

Kastu hori guztia, oso osorik, herriaren bizkar ezartzea gehiegizkoa zirudien. Hemen eta han egin diren hainbat gestio bideren ondoren, BOST MILIOI pezetako laguntzabidea eskaintzera iritsi da Gipuzkoako Foru Dutaiaia, bertako Kultur Departamenduaren bidez.

Horrenbesteko laguntza eskuan ikusteak, konponketa-lanak aurrerabidean jartzera eragin die bertako arduradunak.

Jasoko den laguntza haundia dela dirudielarik ere, hortik gora ordaindu beharreko beste BI MILIOI peza herriak jahi beharko ditu.

Gauko hondarribiarrei dagokigu, gure artubasek utzi ziguten eliz-egitura bikain hori zutik cuxtea; ez litzateke bidezko izango, garaian garaiko erantzunik eman gabe urtea. Konponketa hau geroakoz utzteak lekarkeen kastuen ugaritzea gero eta zama astunagoa bihurtzen ari zen. Beharrezko zirudien, beraz, arte-alorcan jakitun diren iritziz bala haundiko diren bidriera horien konponketari eskuak erastea.

DON MARTIN



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

GABI

Loradenda

Al. Alonso kalean Tel. 642107
HONDARRIBIA

MEI

Mertzeria

San Pedro kalean, 49 - Tel. 642071
HONDARRIBIA

HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

JAIOZAK

- 1ean: ARITZ Amunarriz Eceiza.
Antonio Julian eta M.^a Belenen semea.
Arrantzale Auzoa, 18-1.
Aitaren bizibidea: Arrantzalea.
- 3an: IORITZ Bernal Orbeagozo.
Jose Antonio eta M.^a Pilaren semea.
Bi-Or etxea - Baserritar etorbidea.
Aitaren bizibidea: Irakaskia.
- 9an: VANESSA Hurtado Navarro.
Angel M.^a eta M.^a Milagrosen alaba.
Iru etxea, 3 - Amute auzoa.
Aitaren bizibidea: Mandataria.
- 10an: YON Gallardo Bracone.
Juan Bautista eta M.^a Doloresen semea.
Biskundi, 4-5 - Lezo Plaza.
Aitaren bizibidea: Izozki saltzailea.
- 13an: JURDANA Goikoetxea Rodriguez.
Pedro eta Piedad alaba.
Sorotzaberi, 3-2.
Aitaren bizibidea: Makina konpontzailea.
- 13an: ALBERTO Perez Espadero.
Juan M.^a eta M.^a Carmenen semea.
Sorotzagan, 14.
Aitaren bizibidea: Isasuntziko patroa.
- 14an: IÑAKI Berges Sanchez.
Ignacio eta M.^a Pilaren semea.
Biteri, 1-1.
Aitaren bizibidea: Arrantzalea.
- 21an: ALEXANDER-FEDERICO AGIRRE REDONDO.
Eugenio eta Ana Mariaren semea.
Eguzkilore, 8-2.
Aitaren bizibidea: Arrantzalea.
- 23an: NERE A Ugarte Olazabal.
Jose Julian eta M.^a Lourdesen alaba.
Ollurtu baserria - Jaizubia auzoa.
Aitaren bizibidea: Harakina.
- 26an: IRAIA Bandres Colchon.
Bernard eta Rosaren alaba.
Loran-2-bai, 2-3.
Aitaren bizibidea: Arrantzalea.

HERIOTZAK

- 1ean: CELESTINA Sagazazu Sagazazu.
95 urtekoa, alarguna. Hondarrribian jaioa.
Lonja, 1-3.
- 5an: MARGARITA Darceles Zapiain.
50 urtekoa, ezkondata. Hondarrribian jaioa.
Arkoll auzoa - Paskual-enea baserria.
- 7an: NATIVIDAD Aginagalde Sorondo.
95 urtekoa, ezkongaina. Hondarrribian jaioa.
Santiago, 15.
- 12an: MANUEL Canoso Marcote.
67 urtekoa, ezkondata. Ameijenda (La Coruña) jaioa.
Rascón B-2 - Mendelu auzoa.
- 13an: IIBIANO Arbelaitz Olazabal.
81 urtekoa, alarguna. Hondarrribian jaioa.
Arrantzale auzoa, 20.
- 15an: JOSEFINA Garcia Perez.
53 urtekoa, alarguna. Hondarrribian jaioa.
Guadalupeko Ama, 12-4.

- 24an: M.^a JOSEFA Mugica Ormazabal.
91 urtekoa, alarguna. Donostian jaioa.
Hondarrribiko ospitalean bizi zena.
- 25an: CELEDONIA Sarasola Sagazazu.
84 urtekoa, alarguna. Hondarrribian jaioa.
Mendelu - Juamita etxea, 1.

EZKONTZAK

- 1ean: JOSE ANTONIO SANCHEZ ALONSO: 29 urtekoa - Salamancan jaioa - arotza - Sta. Engracia, 18.
- ANA M.^a CALVO ELIZAZU: 23 urtekoa - Hondarrribikoa - irakaskia - Ur-txindor etxea Guabarran kalea.
- 15an: JOSE MANUEL TOMAS MURUA ROMA: 32 urtekoa - Errenterian jaio eta bertan bizi dena.
- M.^a EUGENIA PEREZ ARTOLA: 25 urtekoa - Donostian jaio eta Errenterian bizi dena.
- 15an: JOSE ANTONIO GOMEZ GARCIA: 27 urtekoa - Donostian jaio eta Iruñen bizi dena.
- MARIE THERESE AROCENA RODRIGUEZ: 24 urtekoa - Hendaiain jaio eta bertan bizi dena.
- 22an: AGUSTIN PERIBANEZ TOVAR: 22 urtekoa - Iruñen jaio eta bertan bizi dena - elektronikoa.
- M.^a DE SONIA URIARTE CASTRO: 18 urtekoa - Hondarrribikoa - esteko lanak - Santiago kalea - Fuster-3.
- 22an: JULIAN SILVIA FELIX: 30 urtekoa - El Bordon-en (Salamanca) jaio eta Iruñen bizi dena - pastelagilea.
- GUADALUPE ECIZA PADULEAGA: 22 urtekoa - Hondarrribikoa - saltzailea - San Nikolas kalea, 18.

MARTXOAN ZER?

2. Igandea:
4.30etan: Ama Guadalupe Ikastetxean "Robin de los bosques" zine emanaldia.
5.30etan: Guadalupeko elizan Garizumako elizkizuna.
4. Asteartea:
4.30etan: Klink Elkarteak "Sukaldaritza ikastaroa", Gurutze Gornak antolatua.
6. Osteguna:
7.30etan: Itas Etxean Sidney Lumet-en "Serpico" zine emanaldia. Zine Elkarteak antolatua.
9. Igandea:
4.30etan: Ama Guadalupe Ikastetxean "Aventuras del Caribe" zine emanaldia.
5.30etan: Guadalupeko elizan Garizumako elizkizuna.
- 10ik 14ra:
8etan: Kaputxinoen parrokiak "Gazizumako Gogate hitzaldiak".
15. Larunbata:
4etan: Alamedan Urpeko Ikastaroa Izerdik antolatua.
8etan: Portuko Elizan Valladolidko "Capilla Clasica"ren kontzertua.

16. Igandea:
4.30etan: Ama Guadalupe Ikastetxean "El amor del mundo" zine emanaldia.
5.30etan: Guadalupeko elizan Garizumako elizkizuna.
20. Osteguna:
7.30etan: Itas Etxean Carlos Sauraten "Elisa, sida miña" zine emanaldia. Zine Elkarteak antolatua.
21. Ostirala:
8etan: Portuko elizan "Elizondo" abesbatza-ren kontzertua.
22. Larunbata:
7etan: Betharrango parrokiak Elkarte-antona.
8etan: Portuko elizan Gasteizko "Sanamengo" abesbatza-ren kontzertua.
23. Igandea:
10.15etan: Jasokunde parrokiak Erramu bedenkatzera eta Meza Nagusia.
11etan: Kaputxinoen parrokiak Erramu bedenkatzera eta Meza.
11.30etan: Betharrango parrokiak Erramu bedenkatzera eta Meza.
4.30etan: Ama Guadalupe Ikastetxean "Las aventuras de Tom Sawyer" zine emanaldia.
5.45etan: Jasokunde parrokiak Errozarroa eta Gurutz-bidea.
25. Asteartea:
4etan eta 8etan: Penitenti-elizkizuna euskaraz Portuko elizan.
26. Asteazkena:
4etan: Penitenti-elizkizuna erdaraz Portuko elizan.
7.30etan: Kaputxinoen parrokiak penitentziaren ospakizuna.
8etan: Penitenti-elizkizuna erdaraz Jasokunde parrokiak.
27. Osteguna:
8etan: Meza euskaraz Portuko elizan.
8etan: Betharrango elizan Eukaristia.
8etan: Portuko elizan umeentzako elizkizuna.
7.30etan: Kaputxinoen parrokiak Jaunaren afaria.
8etan: Jasokunde parrokiak Elizkizun nagusia.
28. Ostirala:
8etan: Kaputxinoen parrokiak Gurutz bidea.
9etan: Betharrango parrokiak Gurutz bidea helduentzat.
10etan: Jasokunde parrokiak Gurutz bidea.
11etan: Betharrango parrokiak Jaunaren ospakizuna.
12etan: Portuko elizan Jaunaren heriotzaren ospakizuna umeentzako.
- 4etan: Kaputxinoen parrokiak Jaunaren Nekaldia.
5etan: Jasokunde parrokiak Elizkizun nagusia.
5etan: Betharrango parrokiak Elizkizun berezia.
29. Larunbata:
7.30etan: Kaputxinoen parrokiak Gurutz bidea.
8etan: Portuko elizan Puzko-elizkizuna umeentzat.
8etan: Hiru parrokiak Puzko-elizkizuna.
30. Igandea:
8etan: Txusalariek Seguraren Alborada joko dute.
9.30etan: Lasterketa Txirindulak ekarriak antolatua.
10etan: Jasokunde parrokiak Tiopara eta Meza nagusia.
11.30etan: Betharrango parrokiak Garzen meza.
12etan: Kale Nagusian Bertsoariak.
12.30etan: Kale Nagusian Sokamuturra.
20.30etan: Orkestra baten jaudia, zeren saizkor bukaerako.
31. Astelehena:
11etan: Guadalupe Meza, toka, bertsoariak eta Trikitrixak.
4.30etan: Guadalupe Haur-jolasak.
5.30etan: Guadalupe Sokamuturra, trikitrixak eta bertsoariak.

JASOKUNDE ANDRE MARIAREN ELIZAN

ERRAMU EGUNA

Parrokian
Goizeko 10,15etan: Erramu bedeinkatzea ta ibiltzea.
Goizeko 10,30etan: Meza Nagusia Parrokian.
Arratsaldeko 5,45etan: Errosarioa, Gurutz-bidea (euskaraz).
Arratsaldeko 6,30etan: Meza (endaraz).

ASTEAREN SANTU

Arratsaldeko 4etan: Penitenti-elizkizuna (Portuan).
Arratsaldeko 8etan: Penitenti-elizkizuna (Portuan).
Biek euskaraz.

ASTEAREN SANTU:

Arratsaldeko 4etan: Penitenti-elizkizuna (Portuan).
Arratsaldeko 8etan: Penitenti-elizkizuna (Parrokian).
Biek endaraz.

OSTEGUN SANTU:

Arratsaldeko 6etan: Umeentzako elizkizuna Portuko elizan (bitara).
Arratsaldeko 8etan: Elizkizun Nagusia Parrokian (bitara).
Oarraz: Arratsaldeko 8etan meza izango da euskaraz Portuko elizan.

OSTIRAL SANTU:

Goizeko 10etan: Gurutz bidea euskaraz Parrokian.
Eguediko 12etan: Jaunaren Heriotzaren ospakizuna, UMEENTZAKO, Portuko Elizan (bitara).
Arratsaldeko 8etan: Elizkizun Nagusia Parrokian (bitara).
Gurutzetik eraztea eta hitzaldia. Ibildeuna kaleetan zehar.

LARUNBATA SANTU:

Arratsaldeko 6etan: Pazko-elizkizuna umeentzako, Portuko Elizan (bitara).
Arratsaldeko 8etan: Pazko-elizkizuna eta Meza Nagusia Parrokian (bitara).

PAZKO IGANDEA:

Goizeko 10etan: Erromatar gudanaren erortzea. Tropara eta Parrokiko eliz-barruan ibildema.
10,30etan: Meza Nagusia Parrokian (bitara).

KAPUTXINOEN PARROKIAN

Martxoak, 10-14: "Garizumako Gogarte Hitzaldiak".
Arratsaldeko 8etan.

ERRAMU IGANDEA:

Hamaiketako meza: Erramua bedeinkatzea.

ASTEAREN SANTUA:

Arratsaldeko 7,30etan: Penitentiaren ospakizuna.

OSTEGUN SANTUA:

Arratsaldeko 7,30etan: Jaunaren afaria.

OSTIRAL SANTUA:

Goizeko 8etan: Gurutz bidea.
Arratsaldeko 4etan: Jaunaren Nekaldia.

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

LARUNBATA SANTUA:

Goizeko 7,30etan: Gurutz bidea.
Arratsaldeko 8etan: PAZKO GAU-BEILLA.

PAZKO EGUNA:

Mezak, igandero bezala.

MIKEL GARIKOITZ DONEAREN PARROKIAN

Martxoak 22, Larunbata:

Arratsaldeko 8etan: Elkarte-antoketa.

Martxoak 23, Igandea:

Goizeko 11,30etan: Erreinu bedeinkatzea (meza).

Martxoak 27, Osteguna:

Arratsaldeko 8etan: Eukaristia.

Martxoak 28, Ostirala:


Goizeko 9etan: Helduentzat Via Crucis.
Goizeko 11etan: Haurren ospakizuna.
Arratsaldeko 8etan: Elizkizun berezia.

Martxoak 29, Larunbata:

Arratsaldeko 8etan: Pazko berperaren ospakizuna.

Martxoak 30, Igandea:

Goizeko 11,30etan: Gazteen meza.



ESKOLETAKO ORRIA

Esku artean dituzuen orri hauetan, bada tarte bat ere irakaskuntzarentzat. Gai honi buruz zenbait ohar, datu, eta baita ikasleen idazlanak ere, hala nahi baluteke, agertuko dira.

Hasteko, goazen zenbait datu azaltzera:

1985-86 kurtsoan honako haur kopuru eta euskara eredu ditugu Hondarribiko ikastetxeetan:

Ikastetxe	Eredua (1)	Esko-laurrea	O.H.O.
Ama Guadalupe Ikastetxea	D, B, A	82 haur	229 haur
Biteri ikastetxea	D, B	232 haur	232 haur
Hondarribia Ikastola	D	149 haur	524 haur
Jesus Haurra Ikastetxea	A	77 haur	309 haur
Mendela	A	7 haur	—
Pedro Aginagalde	B, A	—	185 haur
Puntala	D, B	39 haur	—
San Jose Ikastetxea	A	73 haur	297 haur
Soroceta	D	44 haur	—

Hau ikusita, Hondarribiko eskoletan dabilzen 2.247 haurretatik, erdia baino gehiago euskaldunak dira edo euskalduntzeko bidea aukeratu dute. Lan hau ezin da utzi eskoletako eskutian bakarrik. Herriak ere zer esanik badu! Denen baitan dago arazo hau bideratzeko!

(1) A ereduak: Erdaraz ematen da eskola, eta euskara asignatura bezala irakasten da.

B ereduak: Erdaraz gai batzu, eta euskaraz beste batzu irakasten dira.

D ereduak: Euskaraz irakasten da eskola, eta erdaraz asignatura bezala.

OHARRAK:

Martxoak 12: OTANI buruz erreferenduma izango denez, eskoletan jaiak izango da, zentro hauek erabiltzen bait dira botoak jasotzeko.

Martxoak 19: San Jose eguna. Kurtsoko egutegia egiterakoan jaiak planteatzen zen. Orain, berriz, jai hau beste egun batetara pasa delako, lan egingo dugu. Baina, horren ordez, maiatz 1-ean zuhia ospatuko dugu.

Martxoak 26: Aste Santuko oporraldia hasten da. Zentro batzuetan egurdiari, besteetan, berriz, arratsaldean.

TXUNTUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

GAZTERIA

HONDARRIBIARRAK ANDALUZIAN

Institutoko neska-mutil talde batek bidaia bat egin dugu Andaluziara: Cordoba, Sevilla, eta probintzia honetako Herrera eta Marinedara. Bidaia honen bidez, andaluziar herriaren ekonomia, ohiturak, kultura eta problematika ikasi nahi izan dugu. Hara heldu eta berehala konturatu ginen hura gure herriaren aldean guztiz aldrebeskoa dela: herri txikiak, jende gutxi kaleetan, errepide txarrak, industria gutxi, nekazaritza eta abeltzaintza asko, eta jendea oso sinpatikoa.

Bisitatu genuen herrietako bat Marinedala izan zen. Esperientzia on bat izan zen. Bere alkaterekin elkar hizketa luze bat izan genuen. Berak herri berezi honek nola funtzionatzen duen kontatu zigun. Esan zigun botanleak ez daudela prest, aurrerapenaren izenean, jan gabe gelditzeko.

Herri honen arazoa zera da: bere lur gehienak, haundiek okupatuta daudela. Lurrak lantzen ez dituzten eta herriatik kanpo bizi diren "terrateinente" haundiak dira jabeak. Horregatik bertan lan egin dezaketenen langileak, langabezia dauka. Egoera hau ezin eraman zutela, lur horiek okupatzeari ekin zioten, eta lantzen jarri. Hau dena legearen kontrakoa denez, arazo larriak izan zituzten goardia zibilarekin. Ezer ez zutela lortzen ikusirik, alkateak eta langile talde batek gose greba hasi zuten. Hamabi egunetan zehar egon ziren sartuta Udaltxean, baina ez zuten ezer lortu. Hala ere, protesta gehiagoren ondoren (erregadiozko lanak egiteko, baso birlandaketa lortzeko, e.a.) zerbait agindu diete.

Marinedako antolaketa oso berezia da. Herri edo estatu txiki bat bezalakoa da. Jendea oso elkartua sentitzen da, eta bateraturik lan egiteko prest dago. Bizitale guztiek (emakumeak eta gazteak sartuta) bilera orokorretan parte hartzen dute, herriko arazo guztiek aztertzeko. Gauza interesgarrietako bat "igande gorriak" irudi zitazkigun: herriko jende guztia, igandetan, 9etan elkartzen da, eta guztiak antolatzen ditu: lurretara, etxeak egitera, parkeak, polikirolegiak, e.a. Hau dena alkateak erabakitsi zigun.

Batzuk dioanik egiten dute lana. Gobiernuak langabezia dauken langileei ordaintzen dien dirua (Fondo de empleo comunitarioa) Udaltxeari ematen diote, eta honek administrazioan du obra horiek egiteko.

Populazioaren %50 edo %60 langabezia dago urteko 10 bat hilabetetan, azetuna edo kotoia hartu behar denean izan ezik. Gero gobernuak zerbait (limona bezalakoa, esaten du alkateak) ordaintzen die zenbait lan egitearen ordet.

Egoera honek emigrazio handia ekarri du Marinedara.

Herri honetan gehien gustatu zitzaiguna jendearen arteko kolaborazioa izan zen, herria aurrera ateratzeko.

Marinedatar aparte beste herri batean egon ginen: Herrera de Sevilla. Bertako egoera oso diferentea zen eta Andaluziako herrien artean bizi maila onenetariko bat bezala jota zegoen, bere alkateak (PSOE'koa) esan zigunez. Egoera hau erregadioari eta zenbait fabrikari zor zaio (Azetuna ebotezko fabrikak eta ehungintzako besteren bat). Gainera, lurren jabeagoa nahiko banatuta dago, eta, erregadioa erabiltzeko, nekazariak kooperatibetan elkartu behar izan dira. Aldaketa hauek dira Andaluziako herrietara aurrerapena eta aberastasuna ekar dezaketena, zeren eta berez Andaluzian oso eskualde aberatsak daude. Herri honetara, beste garai batean Euskal

Herrira edo Cataluniara joan ziren biztanle asko itzuli ziren, eta lortutakak diruaz beren etxea egin zuten.

Herrera-ko jende gehiena oso ondo portatu zen gurekin: zaldiz ibiltzera eramanez kurtzio batera, erregalatu zizkiguten zenbait gauzatxo, eta oso prezio baxuak kobratzen zizkiguten.

Marinedalan esaten zigitenez, eurek ez dute ezer euskaldunen aurka Gobiernuarentzat euskaldunak inkomodoak baldin badira Marinedarrak ere bai.

INSTITUTOKO IKASLE TALDE BATEK

SEXUALITATEAZ HITZALDIAK INSTITUTOAN

Irungo Familiaren Plangintzarako Zentruak Hondarribiako eta Irungo Udalen laguntzarekin antolatutako izan dira hitzaldi hauek. UBI (COU)-ko ikasleei zuzentzen zaizkie eta lau hitzalditan zehar ukituko diren gaiak hauek dira:

— "Sexuari buruzko informazio orokorra". Hitzaldi hau 1. familiaren Plangintzarako Zentruan bertan emango da.

— "Haurdunaldia, erditza (parto) eta erditza ondorena". Hemen, ikasketxean.

— "Sorketakontrako metodoak". Ikasketxean.

— "Sexu bitartez heleratzen diren gaisotasunak". Ikasketxean hau ere.

Hitzaldiak emango dituztenak medikuak, psikologoak eta emaginak (matronak) izango dira eta gai bakoitza argitzeko bideo-zinta erabiliko da. Helburua, sexuari buruzko informazio eta formazioan, ikasleei orientatzea eskaintzea besterik ez da.



BURBUXAK

Artileak pisura
Neurriko elastikoak

Santia kalean HONDARRIBIA

LUISA

Arrandegia

Zuloaga kalean Tel. 641757
HONDARRIBIA

GALARZA

Garbigaidenda

San Pedro kalean HONDARRIBIA

KIROLAK



KIROLZALEEI

probatu besterik ez du. Gorputza sano, eta buru argi edukitzeko, bide aproposa iruditzen zaigu. Gainera, debaldeko izanik, animatzeko moduko da.

—Ez ba, asko animatzen garen! Eskerrikasko, Maritxu.

JUANJO

Ez da erraza orri baten Hondarribian egiten diren kirol mota guztien berri ematea. Denetik egiten denez gero, bai partido guztiak eta bai emaitza guztiak hemen ematea ezinezkoa izango zaigu. Dena dela, Coubertingo Konde famatuak esan omen zuenari jarraituz, alegia, garrantzitsuena ez dela irabaztea, parte hartzea baizik, gure herrian ehundaka haur, gazte, eta heldu, kirol zaletasunez beterik daudela, eta deportea praktikatzeko dutela jakitea da benetako garrantzia duena. "HONDARRIBIA" aldizkaria irekia dago, kirol guztien berri emateko, ahal den neurrian. Barka diezagute, beraz, gaur, lehendabiziko alean agertuko ez diren taldeak. Urtegarrean izango dute eurek ere lekutxo bat.

ERRAMUN

ARIN TALDEA

Arrokako Maritxu Anzizar dugu kirolari bultza da betean diena. Berak esaten digu zein talde zuzentzen duen:

—Orain dela hiru urte hasi ginen hondarribian sokineta egiten. Jendetxo bat bazen sokineta egin nahi zuena, eta, badakizu zer gertatzen den, lehenengo lotsa piska bat ere izaten da, baina gero guztiak konten.

—Zenbat biltzen zarete?

—Berrogeiren bat lagun egunoro, larunbata eta igandea ezik.

—Izardi ederra botako duzue, ala patxaran hartzen duzue sokineta?

—Ez, ez, guk oso harto hartu dugu gauza, eta ordubetako sokineta gogorra egiten dugu. Hala ere, inor ez da aspertzeko edo damutzen, eta, esan dizut, guztiak txol konten gaude.

—Ezan duzu hondarribian hasi zinetela, baina orain non egiten duzue?

—Polikiroldegian egiten dugu, goizeko 9etatik 10etara. Talde atsegina da, eta nahi duenak

TXIRRINDULARIAK

Martxoan emango diote hasiera Txirrindulari Elkartekoek ibilaldiet. Haundiek 3.100 km, egingo dituzte, eta gazteek 700 km.

Gainera, aurtengo "nobedadea" txirrindulari ekipoa egitera doazela da.

Ziklista jubenilen ekipoa izango da, izena "ERKA-HONDARRIBIA". Gipuzkoako karretan hartuko dute parte ekipa berri honetako lau ziklista gazteetako. Animoa eman nahi diegu, eta zorte on bat izan dezatela!

Pazko egunez, estatutal kategoridun karrera izango dugu Hondarribian, 120ren bat ziklistek parte hartuko dutelarik. Karrera haur, martxoaren 30ean korrituko da Hondarribian.

ERRAMUN

ESKUBALOIA

Haurren sailean jokatzen da, Ama Guadalupeko 2 ekipok. Ikastolako batek, eta Aginagaldeko beste batek parte hartuz. Astean bitan entrenatzen dira haur hauek, astearte eta ostegunetan. Txapelketan destakatzeko direnak, gora-gorak mailara garoko dira, eta hor dabilta gure mutikoak jotake zaletasunik haundienaz. Badago materiala, eta jokalariei onak aterako dira.

JOSEBA

SASKIBALOIA

Arlo honetan ere ugari direnez jokatzen duten taldeak, ezina zaigu gaur guztien berri ematea. Eskola, ikastola, ikastetxe guztiak daude sartuak kirol mota honetan, eta asteoro jokatuz eta entrenatuz, gori mailara igoazteko dabilta, baina, batez ere, kirolaren bidez, gorputz osasuntsua edukitzeko gogoz.

JOSEBA



JUANJO

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobek

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

AXULAR
LIBURUDENDADidaktika jokoak
Euskal liburu eta diskak

Matxin de Arzu kalean - HONDARRIBIA

I. ALKAIN

Mertzeria - Ehungitza

Arrantzale Auzoan, 13
HONDARRIBIA

GAZTEAK GARA

106 URTE DITUGU.

Aurrezki-Kutxen ideia munduan zehar zabaldu baino askoz ere lehenagotik hasiak ginen gu gipuzkoaren aldeko lanean.

Eta gaur Kutxa gazte bat gara. Eta, gipuzkoak bezalaxe, etorkizun oso bat daukagu eraikitzeko.





Mundua aldatzen ari delako. Eta oraindik gehiago aldatu behar duelako. Teknologia berriak, ohitura berriak eta erronka berriak dauzkagu itxoiñ guztiok.

Baina gure lur hau jadanik ohitua dago problemei konponbideak aurkitzen. Problema handiei, gainera, batzuetan.

Eta beti aurkitu izan du bere jendeen artean etorkizuna eraldatzeko behar hainbateko gogoa eta lehia.

Eta horretantxe gaude. Zerbitzuzko historia oso bat dugula atzetik. Eta eraiki beharreko etorkizun oso bat aurretik.

Geure etorkizuna. Gipuzkoar guztiona.



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA

Zer uste zenuen zirela ihauteriak trapu zaharrak hartu ta bertan jantzitza, garrantzitsuena ondo pasatzia bainan denetan-hobe ongi egotia.

Andereinoak sartzen dirkigute ziriak baina zaila izaten da guri engainatza, joku guztiak dira oso zaila jarriak baina guk ez diegu ematen garrantzia.


F. A. - 6. mailakoa



Ihauteriak dira ta oso pozik gaude asko jolastu eta irabazle gare, horregatik ditugu hainbat eskubide irakasleei eskatu "irabazte talde".

Jolas eder honetan lehenengo iristeko ahal duguna eginda bertsoa isteko. Ez dakigu zer egin gaizki ibiltzeko eta gogoia dugu dena irabazteko.

I. Z. - 6. mailakoa



Aurten elkartu gara berri Alamedan moztorroz jantzi eta oso giro ohean. Aurrean jarri ezker txanpaina bai edan gero sartu patxadan etxeko ohean.

Aurten ere berriro dugu ihauteri neskak omen dabilza ipurdi ageri, mutilak ere baita. zaie bai igorri, pasa behar ditugu berriro ere gorri.

A. L. - 6. mailakoa


IRRIPARRAK

NOLA AHAZTU BA?

Senar-emazteak mahaian eserita, Gizona "Marca" irakurtzen emazteari kasonik ere egin gabe.

—Ikusita dago bai, gehiago axola zaizula futbola zure emaztea baino. Ez al zara oroitzen gaur dela hogeitahamar urte ezkondu ginela?

—Nola ez naiz ba gogoratuko? Egun hartan Madril 4 eta 0 irabazi genion eta.



ESKOLAN

Gure gela bagenuen lagun bat sekula geldirik egoten ez zena.

Egun batean irakasleak zera galdetu zion:

—Aizak, Felix! Hi noiz jαιο hintzen?


—Seguru ez dakit, baina igandea izango zen, ez bait nintzen eskolara joan.

Beste behin gelara oso pozik etorri zitzaigun, arreba txiki bat izan zuela eta. Arreba gora, arreba behera egun guztia bere arrebaz hizketan.

Halako batetan irakasleak galdetzen dio:

—Eta zein izena du?

—Ez dakit! Oraindik ez baitzaio ulertzen!



OLENTZAROK TAMPAX BAT

Ibontxo eta Aitorxo, Olenizaro bezperetan ikastolatik etxera:

—Aizak, Aitor, hik zer eskatu behar diok Olenizarori?

Aitorrek gauza pila bat kontatu eta Ibon-txori:

—Eta hik zer eskatzeko asmoa duk?

—Nik tampax bat.

—Tampax bat... emakumeak erabiltzen duen zer hori...

—Bai, zeren tampax batekin zaldi gaineen ibili ahal haiz, motorrean, baloi jokoa, bizikletan...